



Zumalakarregi Museoa. Programa Garatu 2007

Zumalakarregi Museoak, **Ondarearen didaktikari** buruzko ikastaroa eskainiko du, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko GARATU, ikasleentzako prestakuntza-eskaintzako programaren barnean.

Hartzaileak

Ikastaro hau Gizarte Zientziak, Geografia eta Historiako DBHko irakasleei eta Ingurunearen ezaguera Lehen Hezkuntzako (3.zikloa) irakasleei zuzendua dago

Helburuak

- 1.- Ondorengo baieztapen garrantzitsu hauen aurrean, irakasleekin kontzientzia sentikorra landu:
 - Ondarea ezagutu eta aintzat hartu, bere aberastasunaz goza ahal izateko.
 - Ondarearen zaintzan, transmisioan eta bere balioa handitzen lagundu modu aktiboan.
 - Ondarea behatzen eta aztertzen jakin.
 - Kultur ingurunearekiko erreflexio eta komunikazio jarrera izan.
- 2.- Beste testuinguru batzutan izandako ondarearen didaktikari buruzko proiektu desberdinak ulertu eta aztertu.

Edukiak

- 1.- Kontzeptu teoriko oinarritzakoak: ondare kontzeptuaren sarrera laburra. Ondare hezkuntza irakasgai gisa. Ondare hezkuntza ereduak.
- 2.- Ondare komunikazioa subjektu gisa: Ondarea irakatsi eta ikasi eskolan. Ondarea irakatsi eta ikasi museoan. Interneten ikasi: XX. mendeko ondarearen ulermena eta balioespena.
- 3.- Ondarea ezagutu, balioztatu eta zaintzeko beharraz kontzientziatzeko hezi: Transmisio mekanismoak. Sentsibilizazio proposamenak
- 4.- Elkarreraginak ondareekin: museo-eskola lotura

Metodologia

- Klaseak
- Praktika: material eta ekintza didaktikoen adibideak.

Tokia eta ordutegia

- Bilbon, Sarricon azaroaren 5etik 16ra bitartean.
- Donostian Museum Cemento Rezolan azaroaren 19tik 31era bitartean, Biak, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara.

Argibide gehiago nahi izanez gero eta izena-emateko:

Eusko Jaurlaritzak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza. Telefonoa: 945 01 83 53. Izena emateko azken eguna: irailaren 6a